

## **8. AKTA**

**GOBERNU BATZORDEA**ren bilkura, 2002-06-20an egina.

NON: Pasaiako herriko Udaletxean

NOIZ: 2002ko ekainaren 20an.

BERTARATUAK:

Joseba Xabier Portugal Arteaga jn.  
Ricardo del Pozo Gil de Albornoz jn.  
Obdu Lorenzo de Dios and.  
Bilkura buru: Juan Carlos Alduntzin alkate jauna

Gobernu Batzordearen bilkura egiteko elkartu dira goian izendatu ditugunak, Joseba Belaustegi Cuesta udal idazkariarekin batera, zehaztutako data eta tokian, aurretik bidali zaien bilera-deiari jarraiki. Angel Ouviña Vidal zinegotziak ez du justifikatu etorri ez izana.

Bilkura buruak ikusi du batzordekide aski badagoela Gobernu Batzordea eratzeko eta bilkurari hasiera eman dio 18.00etan, aztergaien zerrendari helduz.

### **1.-Aurreko bilkurako akta 7a. 2002-05-27koa, irakurtzea eta onartzea**

Bilkuran diren batzordekide guztiek, aho batez, idazpuruko aktari dagoen bezala ondo dagoela iritzi diote, eta bere horretan dagokion Akta Liburuan transkribatzea erabaki dute.

### **2.-02/7. kontu eta fakturen zerrenda.**

Gobernu Batzordeak, bilkurara agertu diren zinegotzi guztien adostasunez, honako kontuak eta fakturak onartzea erabaki du:

Zk.: 7/02

Zenbatekoa: HIRUROGEITA HAMABI MILA, BEDERATZI EHUN ETA HIRUROGEITA HAMALAU EURO ETA BERROGEITA HAMABI ZENTIMO (72.974,52 euro).

### **3.- 3. eta 4. ziurtagiria "Arizabalo Jauregiaren Zaharberritzea, Donibane kalea, 19an" obrari dagokiona.**

Gobernu Batzardeak ondoko obra-ziurtagiria onartu du, bilkuran diren zinegotzi guztien adostasunez:

Zk.: 3 eta 4. Ziurtagiriak.

Obra: "Arizabalo Jauregiaren Zaharberritzea, Donibane kalea, 19an".

Obra zuzendaria(k): Iñaki Ormazabal jn. (Udal Arkitektoa) eta Jose Mari Irazusta jn.(Udal Aparejadorea)

Enpresa kontratistaren alde: TECPROPASA EUSKADI, S.A. (TEUSA) eta J. URRACA ERAIKUNTZAK, S.A. (CJUSA), (U.T.E. ARIZABALO).

Zenbatekoa: BERROGEI MILA EHUN ETA LAUROGEITA HAMASEI ETA HIRU ZENTIMO (40.196,03 EURO) eta BERROGEITA HAMAHIRU MILA ZORTZIEHUN ETA BAT ETA HIRUROGEITA HAMAZAZPI ZENTIMO (53.801,77) hurrenez hurren.

D-1622/01 eta 1623/01, eta D-1623/01 eta D-1624/01 disposamenduan kargura, hurrenez hurren.

#### **4.- 14. ziurtagiria: "Ulia Etorbidea eta Azkuene kalea lotzeko" obrarena.**

Gobernu Batzardeak ondoko obra-ziurtagiria onartu du, bilkuran diren zinegotzi guztien adostasunez:

Zk.: 14. ziurtagiria

Obra: "Ulia Etorbidea eta Azkuene kalea lotzeko".

Obra zuzendaria(k): Eduardo Satostegi (Eraiki, S.L.)

Enpresa kontratistaren alde: CONSTRUCCIONES DUMBOA, S.A.

Zenbatekoa: HIRUROGEITA SEI MILA BOSTEHUN ETA BERROGEITA ZORTZI EURO ETA LAUROGEITA BI ZENTIMO (36.548,82 EURO).

Kontusail honetatik: D-1497/01

#### **5.- 8. ziurtagiria (azkena): "San Pedro 2.01 Morales Oliver Eremua: Markina Injinerua eta Herriko Plazaren A.U.-ren urbanizazioa".**

Gobernu Batzardeak ondoko obra-ziurtagiria onartu du, bilkuran diren zinegotzi guztien adostasunez:

Zk.: 8. (azkena)

Obra: "San Pedro 2.01 Morales Oliver Eremua: Markina Injinerua eta Herriko Plazaren A.U.-ren urbanizazioa".

Obra zuzendaria(k): Juan Carlos Lapazarán (Arkitektoa) eta Jose Mari Irazusta jn.(Udal Aparejadorea)

Enpresa kontratistaren alde: COBRA INSTALACIONES Y SERVICIOS, S.A.

Zenbatekoa: HOGEITA BAT MILA HIRUREHUN ETA LAUROGEI EURO ETA HIRUROGEI ZENTIMO (21.380,60 euro).

Kontusail honetatik: D-458/01

**6.- 9. eta 10. (azkena) ziurtagiriak: "Antxo-Iparra Berrurbanizazioa (C-1 Merkatua)".**

Gobernu Batzordeak ondoko obra-ziurtagiria onartu du, bilkuran diren zinegotzi guztien adostasunez:

Zk.: 9 eta 10.(azkena)

Obra: "Antxo-Iparra Berrurbanizazioa (C-1 Merkatua)"

Obra zuzendaria(k): Juan Carlos Lazparán jn. Igor Urrutia jn. eta Jose Mari Irazusta jn.(Udal Aparejadorea)

Enpresa kontratistaren alde: CONSTRUCCIONES DONOSTI

Zenbatekoa: HIRUROGEI MILA BERREHUN ETA HIRUROGEITA ZAZPI EURO ETA ZORTZI ZENTIMO (60.267,08 EURO) ETA BERROGEITA SEI MILA SEIEHUN ETA LAUROGEI EURO ETA HIRUROGEITA HAMABI (46.680,72 euro) hurrenez hurren.

Kontusail honetatik: A-1824/01

**7.- 1. ziurtagiria : lurrak egonkortu eta bizilagunentzako eta eraikinarentzako arriskua kentzeko obrak, Azkuene, 42, Trintxerpe.**

Gobernu Batzordeak ondoko obra-ziurtagiria onartu du, bilkuran diren zinegotzi guztien adostasunez:

Zk.: 1.

Obra: "Lurrak egonkortu eta bizilagunentzako eta eraikinarentzako arriskua kentzeko obra, Azkuene, 42 Trintxerpe"

Obra zuzendaria(k): KEMEN, ESTUDIOS Y PROYECTOS, S.L.

Enpresa kontratistaren alde: CONSTRUCCIONES VALERIANO ARRAECHEA, S.L.

Zenbatekoa: HAMABI MILA ETA HIRUROGEITA HAMABOST EURO ETA HOGEITA BEDERATZI ZENTIMO (12.075,29 euro).

Kontusail honetatik: D-747/02 eta D-748/02.

**8.- Jubilatuen Etxeetarako dirulaguntzak.**

Gobernu Batzordeak bertako zinegotzien aho batez eta Gizarte Ongizateko Batzorde Informatiboak 2002 ekainaren 6an luzatutako diktameneko proposamenez

ERABAKI DU

A) Ondoren aipatzen diren Etxe-Jubilatuei, "Zarrahen biltokientzako udal dirulaguntza" 04.481.456.10.03 partidatik dirulaguntzak banatzea. Guztira 26.775,15 Euro:

- AITONEN ATERPEA –Pasai Donibane-  
4.596,88 Euro
- ZAHARREN BILTOKIA –Pasai San Pedro  
6.359,65 euro
- ZAHARREN BILTOKIA – Pasai Antxo-  
8.121,12 euro
- HOGAR DEL JUBILADO – Trintxerpe-  
7.697,50 euro

B) Ondoren aipatzen diren Etxe-Jubilatuei, “Zaharren biltokientzako udal dirulaguntza” 04.481.456.10.03 partidatik dirulaguntzak banatzea. Guztira 12.808,85 Euro, 2002. Urterako gizarte-jarduera gehiago sustatze aldera:

- AITONEN ATERPEA –Pasai Donibane-  
1.601,87 euro
- ZAHARREN BILTOKIA –Pasai San Pedro-  
2.098,18 euro
- ZAHARREN BILTOKIA – Pasai Antxo-  
4.594,06 euro
- HOGAR DEL JUBILADO – Trintxerpe-  
4.514,74 euro

Emandako dirulaguntza osoaren %50 a akordioa hartu bezain laster ordainduko da eta ginerako % 50 a azaroan, justifikazio gisa urteko memoria eta gastuen berri eman ondoren.

Hau guztia indarreango udal aurrekontuko A-733/02 Baimenduaren kargura.

## **9.- Gizarte-beharrizan Larrietarako Laguntzetan aldaketak.**

Ikusirik Gizarte Zerbitzuen Arduradunak 2002ko maiatzaren 30ean, 2002ko ekainaren 5ean, 2002ko ekainaren 10ean eta 2002ko ekainaren 18an, aurkezturiko proposamena Gizarte Larrialdiko Laguntza Ekonomikoak modifikatzeaz, 1/2002 zka. daraman proposamenari buruz, Gobernu Batzordeak, bertako zinegotzien aho batez,

E R A B A K I D U

LEHENENGO.- Gobernu Batzorde honek 2002ko otsailaren 25eko batzarraldian onartutako 1. proposamenari dagozkion Laguntzak modifikatzea, espedientean agertzen diren onuradunarenak eta azaltzen diren zioak direla eta, bertan agertzen diren kantitateak anulatuz.

BIGARREN.- Aipatu inportea Gizarte Larrialdiko partidara berriro itzultzea.

HIRUGARREN.- Akordio honen berri Kontuhartzailletza Sailari ematea.

## **10.- Branka aldizkariari dirulaguntza.**

Gobernu Batzordeak bertako zinegotzien aho batez eta Euskara Batzordeko Lehendakariaren 2002ko maiatzaren 28ko proposamenez

ERABAKI DU

LEHENENGO.- Arnasa eta Abaraska euskara elkarten babesean argitaratzen den Branka herri aldizkariari 2002 urteko bere egitasmoa garatzeko 12.020 euroko dirulaguntza ematea. Hau guztia “10.481.455.10.01 euskararen aldeko jardueri dirulaguntza” partidatik eta indarreango udal aurrekontuko A-740/02 Baimenduaren kargura.

BIGARREN.- Ordainketa ondorengo eran egingo da:

- %75 = 9.015 euro erabakia hartu ondoren.
- %25 = 3.005 euro abenduan, balantzea eta likidazioa aurkeztu ondoren.

Ordainketa Brankaren kontura transferitu behar da (KUTXAKO 2101.00.61.55.00.10923522).

HIRUGARREN.- Akordio hau interesdunari jakinarazi eta honen aurkako errekurtsoen berri eman.

### **11.- Abaraskari dirulaguntza.**

Gobernu Batzordeak bertako zinegotzien aho batez eta Euskara Batzordeko Lehendakariaren 2002ko maiatzaren 28ko proposamenez

ERABAKI DU

LEHENENGO.- ABARASKAri, San Pedro eta Trintxerpeko euskara elkarteari, 2002. Urteko bere egitasmoa garatzeko 2.700 euroko dirulaguntza ematea. Hau guztia “10.481.455.10.01 euskararen aldeko jardueri dirulaguntza” partidatik eta indarreango udal aurrekontuko A-741/02 Baimenduaren kargura.

BIGARREN.- Ordainketa ondorengo eran egingo da:

- %75 = 2.025 euro erabakia hartu ondoren.
- %25 = 675 euro abenduan, balantzea eta likidazioa aurkeztu ondoren.

HIRUGARREN.- Akordio hau interesdunari jakinarazi eta honen aurkako errekurtsoen berri eman.

### **12.- Euskal Haziari (Arnasa) dirulaguntza.**

Gobernu Batzordeak bertako zinegotzien aho batez eta Euskara Batzordeko Lehendakariaren 2002ko maiatzaren 28ko proposamenez

ERABAKI DU

LEHENENGO.- EUSKAL HAZIA (Arnasa) elkarteari 2002. Urteko bere egitasmoa garatzeko 2.130 Euroko dirulaguntza ematea. Hau guztia “10.481.455.10.01 euskararen aldeko jardueri dirulaguntza” partidatik eta indarreango udal aurrekontuko A-742/02 Baimenduaren kargura.

BIGARREN.- Ordainketa ondorengo eran egingo da:

- %75 = 1.598 euro erabakia hartu ondoren.
- %25 = 532 euro abenduan, balantzea eta likidazioa aurkeztu ondoren.

HIRUGARREN.- Akordio hau interesdunari jakinarazi eta honen aurkako errekurtsoen berri eman.

### **13.- Oarsoaldeko Euskara Batzordearen 2001.urterako proiektua onartzea eta gastua onartzea.**

Gobernu Batzordeak bertako zinegotzien aho batez eta Euskara Batzordeko Lehendakariaren 2002ko maiatzaren 28ko proposamenez

ERABAKI DU

LEHENENGO.- Oarsoaldeko Euskara Batzordeak 2002. urterako proposaturiko proiektua onartzea eta baita Pasaiako Udalari dagokion %25eko gastua ere, hau da, 31.343 eurokoa.

BIGARREN.- Aipatu kantitatea A-743/02 Baimenduaren kargura gauzatuko da.

HIRUGARREN.- Aipatu kantitatea Oarsoaldeko Euskara Batzordeak KUTXAko 2101.0060.00.0010.693141 kontu korrontean irekia daukan kontura transferituko da.

LAUGARREN.- Akordio hau interesatuari jakinaraztea legezkiokkeen errekurtsoeekin.

### **14.- Albaola Elkarteari Hiru Ibai Rallya antolatzeko dirulaguntza.**

Gobernu Batzardeak bertako zinegotzien aho batez eta Kultura eta Hezkuntza Batzarde Informatiboak 2002 ekainaren 6an luzatutako diktameneko proposamenez

ERABAKI DU

LEHENENGO.- ALBAOLA ELKARTEAri Hiru Ibai Rallye-a antolakuntzarako, 300 euroko dirulaguntza ematea.

BIGARREN.- Akordio hau interesatuari jakinaraztea legezkiokkeen errekurtsioekin.

Hau guztia 05.481.451.10.01 partidatik eta indarreango udal aurrekontuko A-656/02 Baimenduaren kargura.

### **15.- Auzolan 2002 dirulaguntza.**

Gobernu Batzardeak bertako zinegotzien aho batez eta Gazteria eta Kirolak Batzarde Informatiboak 2002 ekainaren 12an luzatutako diktameneko proposamenez

ERABAKI DU

LEHENENGO.- ARANZADI-ri 2.103,54 euroko dirulaguntza ematea Arrokaundietan 2002 Lan Zelaia egiteko.

BIGARREN.- Gai honen berri interesatuari ematea legezkiokkeen errekurtsioak seinalatuz.

Hau guztia indarreango udal aurrekontuko 07.481.456.20.01 partidaren eta A-751/02 Baimenduaren kargura.

### **16.- Markina Injinerua kalea, 3 behean hirigintz legaltasuna berrezartzeko lizentzia.**

Gai hau mahai gainean geratu da sakonago aztertu ahal izateko.

Eta aztertzeke beste gairik ezean,14:00etan, batzarraldia amaitutzat eman da, honen eduki guztia akta honetan jasoz, hau Alkate jaunak eta nik, Idazklari bezala ziurtatuz, sinatu dugularik.

